

AURKIBIDEA

1.	Sarrera.....	2
2.	Oinarri historikoak.....	3
	2.1. Arrazismoaren lehen justifikazioak.....	4
3.	Definizio desberdinak.....	5
	3.1. Teorizazio desberdin bat: Foucault	8
4.	Arrazismoaren azterketa soziologian.....	11
5.	Arrazakeriaren agerpenak.....	12
	5.1. Aurriritziak.....	12
	5.2. Estereotipoak.....	12
	5.3. Segregazioa eta diskriminazioa.....	13
6.	Arrazakeriaren muturreko adibidea: Hego Afrikako apartheid-a.....	14
7.	Ondorioak.....	17
8.	Bibliografia.....	18

1. SARRERA

Lan honetan arrazakeriaren elementu garrantzitsuenak aurkezten saiatuko naiz. Horrela, lanak bi zati nagusi ditu. Lehenean –2., 3. eta 4. puntuak–, ikuspegi teorikoago batetik, autore desberdinen ikuspuntuak azalduko dira batez ere, arrazismoa fenomeno konplexua denez bere azalpena ere anitza delako. Bigarrean –5. eta 6. puntuak–, ikuspegi praktikoago batetik, arrazismoaren agerpenek dute garrantzia gehiago.

Lehen zati horretan, hortaz, arrazakeriaren sorrera historikoa azaltzen da lehendabizi, sarrera modura. Arrazismoa ulertzeko fenomeno honek bizi izandako prozesua eta garapena, laburki bada ere, aipatzea garrantzitsua delakoan. Puntu honen baitan, arrazismoaren lehen justifikazioak ere aipatzen dira, beti ere gaur egungo ikuspegitik justifikazio horiek duten seriotasun falta azpimarratuz. Jarraian, arrazismoaren inguruan egindako definizio garrantzitsuenak azaltzen dira, arrazakeriaren inguruko ikuspegi desberdinak agertu asmoz. Puntu berezi batean Foucaulten ikuspuntua azaltzen da, konplexua bada ere arrazismoari buruzko ikuspegi desberdin bat eskaintzen duelako. 4. puntu gisa, azkenik, soziologian arrazakeria aztertzerako orduan egon diren bi tradizio nagusiak era labur batean aipatzen dira.

Bigarren zatian, arrazismoaren agerpenak azaltzen dira, ondorengo hauetan zentratuz: aurriritziak, estereotipoak, segregazioa eta diskriminazioa. Arrazismoa aztertzean, ikuspuntu sozial batetik agerpenek dute garrantzia gehien, eta horregatik aipatzen dira lan honetan. Honekin batera, segregazioaren adibide argia delako, Hego Afrikako apartheid-a ere azaltzen da.

2. ARRAZAKERIAREN SORRERA HISTORIKOA

Arrazakeriaren fenomenoak gizabanako zein gizarte desberdinak dibertsitatearekin harremantzerakoan sortzen da. Horren adibidetzat har dezakegu borroka tribalek erakusten duten xenofobia sentimendua. Chebel d'Appollonia¹ politologo frantziarrak *Los racismos cotidianos* liburuan azaltzen duenez, ideologia arrazista XIX. mendean jaio zen, hiru elementu batu eta gero:

- a) Ilustrazioa eta honek ekarritako aurrerapen enpiriko eta filosofikoak; kultur aniztasunaren kontzientzia eta, aldi berean, gizateriaren batasunaren irudia bereganatuz.
- b) zientzien garapena; biologia, soziologia eta antropologia aipatzen dituelarik autoreak.
- c) eta industrializazio prozesua; berarekin batera proletarizazioa eta kolonizazioa –edo inperialismoa– dakartzana.

Hala ere, joera eta jarrera arrazistek “bestea”-rekiko beldurra dute oinarrian, talde propioetik kanpo dagoena mehatxu bezala pertzibitzea alegia. Joera arrazistak, ondorioz, XIX. mendea baino lehenagokoak ditugu.

Azken honen adibide dugu Grezia klasikoko hirietako biztanleek kanpotarrei *barbaro* deitzea. Hitz honek konnotazio esanguratsua dauka: *barbaro* hitza *bar-bar*-etik dator, hau da, *bar bar* egiten duena, hitz egiten ez dakiena. Greziarrentzat, hortaz, beraien hirietatik kanpo bizi ziren gizatalde horiek ez zekiten hitz egiten ere (honekin batera, gizatalde anitz horien artean ez zuten inolako desberdinketarik egiten, guztiak berdinduz). Fenomeno bera bizi du Afrikako *bereber* herriak, beraien nazioaren izenak arabiarrek jarria baita: *ber-ber* egiten duena, hitz egiten ez dakiena.

Esklabotza zein morrontzaren praktikek, bestalde, historian zehar herri eta etnia desberdinen arteko menperapen harremanak azalerazten dituzte, baina baita gizartearen beraren barneko kontraesanak ere: Nahiz eta jauntxoak zein morroiak jatorri etniko bera izan, desberdintasun sozialek banaketa argia marrazten zuten. Berdina gertatzen zen

¹ Chebel D'Appollonia, A., *Los racismos cotidianos*, Edicions Bellaterra, Bartzelona, 1998

gerraren bidez garaitutako herriekin, zeinak esklabotzara behartuak baitziren. Azken kasu hau, zapalkuntza gizatalde jakin batzuei aplikatzen zaienez, modernitatean aplikatutako tesi arrazistekin antzekotasuna du.

Lehenengo kolonizazioek etnia zehatzen morroitzera erakusten dute, ondoren herri zapalduak bihurtuko diren gizataldeak. Foucaultek dioen bezala, “*el racismo se desarrolló en primer lugar con la colonización, es decir, con el genocidio colonizador*”². Kolonizazioekin, era berean, Europak *salbatzaile* papera bereganatu zuen: bere betebeharrak kulturala omen zen herri *basatien* hezkuntza sozial eta erlijiosoa; herri hauen beraien berezko kultura eta antolaketa suntsituz. Europaren garapen teknologiko eta zientifikoak bide horretan sakondu besterik ez zuen egin.

Arrazakeriaren beste adibide historiko bezala ditugu, besteak beste: Amerikaren kolonizazioa eta bertako kultura indiar zein indigenen suntsiketa edo suntsitze saiakera; Asian XX. mende hasieran Japoniak aurrera eramandako politika inperialista; edota Alemaniako erregimen naziak hainbat talderen aurka (juduak, ijitoak, poloniarrek, eslaviarrek, ezindu fisiko nahiz psikikoak, etsai ideologikoak...) praktikak jarritako neurri genozidak.

2.1. Arrazakeriaren lehen justifikazioak

Arestian aipatu bezala, lehen tesi arrazistak kolonizazioarekin batera gorpuztu ziren. Tesi hauetan, kultura desberdinen artean hierarkia bat ezartzen da eta, honen ondorioz, herri desberdinen arteko domeinu harremanak. Tesi hauek, gainera, XIX. eta XX. mendeetan zehar ideia deterministak bereganatu zituzten.

Arrazismoaren lehen justifikazio *zientifikotzat* har dezakegu Gobineau filosofo eta diplomatiko frantziarraren teoria, *Ensayo sobre la desigualdad de las razas humanas* (1853-1855) obran azaltzen duena. Lan hau Frantziako kolonietan esklabotza debekatu eta bost urtera argitaratu zen. Bertan gizartearen gainbeheraren erruduna “arrazen zahartzea” zela zioen. Pentsamendu arrazista, gutxinaka gorpuzten joango da, denboran gizarte darwinismoarekin batera emango delarik. Horrela, doktrina berriak

² Foucault, Michel, *Genealogía del racismo. De la guerra de razas al racismo de Estado*, Madril, La Piqueta, 1992, 266. orr.

sortuko dira, eugenesia defendatzen dutenak bezala: giza espeziea hobetzeko lege biologikoak aplikatzea, alegia (eugenesian oinarritutako politikak naziek aurrera eramango dituzte). Horrela, Gustave Le Bon-ek esango du *arrotzek herrien arima eraldatzen* dutela, eta Houston Stewart Chamberlain-ek gizartearen arrisku garrantzitsuena *kaos etnikoa* dela. Garai hartan, beraz, arrazakeria guztiz zabaldurik zegoen, baita arlo zientifikoan ere.

Gaur egun, hala ere, azpimarratu beharra dago justifikazio sasi-zientifiko hauek gainditurik daudela. XX. mendearen bigarren erditik aurrera ez dago zientziatik arrazismoa justifikatzeko saiakera seriorik. Horrela, gaur egun *arraza* kontzeptua bera zalantzan dago (hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala), aurriritzietan oinarriturik dagoelako eta, ondorioz, balio subjektiboa duelako. Antropologo, soziologo, biologo eta genetistek gizateriaren batasuna frogatu dute arrazan oinarritutako eskalen gainetik.

3. DEFINIZIO DESBERDINAK

Arrazismoa, kontzeptu konplexua den heinean, zaila da definitzen eta, ondorioz, autore desberdinen arabera definizio desberdinak aurkituko ditugu. Aurrean aipatu bezala, hala ere, arraza eta etniaren arteko desberdinketa gaur egun mundu zientifikoan onarturik dagoela esan dezakegu. Ildo honetan, hauek izango lirakeke bi kontzeptuon definizio soziologiko estandarrak:

Arraza: herentzian jasotako eta gizarteak sozialki adierazgarriak kontsideratzen dituen zenbait ezaugarri amankomun dituen gizabanakoen kategoria.

Etnia: herentzia kultural bat konpartitzen duen gizataldea³.

Arrazak, hortaz, gizakien itxura fisikoarekin eta, beraz, ezaugarri biologikoekin du erlazioa; etniak, berriz, kultur ezaugarriekin: etnia bereko gizakiek arbaso berdinak dituzte, baita hizkuntza eta erlijio amankomun bat ere⁴. Ildo honetan, **arrazismoa**

³ Macionis, John J. eta Plummer, Ken, *Sociología*, Madril, Prentice Hall, 1999, 315. orr.

⁴ Aipatu beharra dago, hala ere, etniak arrazak baino askoz ere izaera boluntarioagoa duela. Hau da, gizakiek beren ezaugarri kultural nahiz etnikoak aldatu ditzakete. Britainia Handira joandako immigrante pakistandarrek, adibidez, ezaugarri etniko propio batzuk mantentzen dituzte baina, aldi berean, hiritar britainiar kontsideratu dezakete euren burua, horrela Britainia Handiko zenbait ohitura bereganatuz [Macionis eta Plummer (1999)-n aipatua, 318. orr.].

“arraza bat beste bat baino hebeagoa (edo okerragoa) denaren sinismena da”⁵. Baina arrazismoaren aferan pixkat sakonduz gero, planteamendu oso desberdinak ikusiko ditugu. Jarraian, autore desberdinek burututakoak azalduko ditugu⁶:

Chebel d’Appolloniak arrazismoa kontzeptua bera ezeztatzen du, arrazak ez baitira existitzen. Bere ustez arrazak ez du zentzurik ez kategoriatu biologiko bezala, ezta kategoriatu soziokultural bezala ere. *Arrazarik gabeko arrazismoaz* hitz egiten du, beraz. Autore honek “bestea”-z hitz egiten du, hori delakoan benetako kategoriatu. Arrazismoaren atzean desberdintasunaren sentimendua dago eta, ondorioz, beldur inplizitu bat. Hala ere, beldurra ez da nahikoa, beldur hori arrazismoan bihurtzeko bi elementu behar baitira: a) hierarkia bat ezartzea gizabanakoa talde batean edo bestean sartzerakoan eta b) desberdintasuna globalizatzailea izatea, hots, talde jakin bateko partaide izate hutsaren bidez partaidearen jokaera guztiak azaltzea. Azkenik, Chebel d’Appolloniaren aburuz, beharrezkoa da arrazismoa eremu politiko nahiz sozialean gorputzea, horrela jokabide arrazista desberdinak justifikatu ahal izateko.

Autore honen definizioan, beraz, desberdintasun hierarkizatua da azpimarratu beharreko elementua, gizabanako zein gizataldeen jokabideak justifikatuko dituen. Arrazakeria, hortaz, gizarte fenomeno baten gisan ulertzen du.

Wierviorkari dagokionez, autore honentzat arrazakeriaren oinarrian ondoko fenomeno dago: Pertsona baten ezaugarriak –fisiko, generiko nahiz biologikoak– edo ondasunak direla-eta, bere ezaugarri intelektual edo moralak ondorioztatzea.

Castlesek, bestalde, hiru elementu azpimarratzen ditu:

- a) Arrazakeria ez da gizabanakoari dagokion patologia bat, fenomeno soziala baizik. Arrazismoa praktika eta diskurtso jakin batzuen batuketaren ondorio da, eta modernitateko historian, ohituretan eta kulturatan ditu sustraiak. Honekin batera, arrazismoa demokraziarekin erlazionatuta dagoela dio Castlesek: “*El racismo está vinculado a la*

⁵ Macionis, John J. eta Plummer, Ken, *op. cit.*, 321. orr.

⁶ Autore desberdinek definizioen sintesia ondoko lanean oinarriturik dago: Pascual Galmés, Antònia, *El racismo y sus formas elementales. Su repercusión en el contexto educativo*, IX Conferencia de Sociología de la Educación, Palma de Mallorca, 2002.

democracia en el sentido que reconcilia ideologías de universalismo e igualdad con las prácticas de la jerarquización y segmentación las cuales son centrales para la economía y el orden social”⁷.

- b) Arrazakeria prozesu bat da, zeinaren bidez gizarte taldeek beste taldeak desberdin edo gutxiagotzat kategorizatzen dituzten, jatorri nazionala, ezaugarri fenotipikoak edota erregistro kulturalak oinarritzat hartuz. Prozesu honetan boterearen erabilera ematen da eta normalean esplotazioa edo bazterketa legitimatzeko xedea du. Talde menperatzailearen boterea egitura jakin batzuetan oinarritzen da (legeak, praktika politiko eta administratiboak...), eta arrazakeri mota honi arrazismo instituzionala deritzo. Honen aurrean, Castlesek arrazismo informala bereizten du.
- c) Arrazismoak intentsitate desberdineko forma ugari dauzka. Castlesek forma desberdin hauek *continuum* baten modura ikusten ditu, sen arruntetik (eguneroko arrazismoa deitzen duena) modu bortitzagoetara. Arrazakeria bortiz edo bilolento honen baitan hainbat era sartzen ditu: jarrera diskriminatzaileak, idatzizko nahiz ahozko irainak, intimidazioa, genozidioa, etab. Finean, Castlesen aburuz arrazismo era guztiak oinarrian biolentoak dira.

Definizio desberdin hauek kontuan hartuta, ondorengo puntuak ondoriozta ditzakegu:

- Arrazismoa gizarte fenomeno bat da.
- Arrazismoa botere-taldeek eraikitzen dituzten ideologiaren adierazpena da; ideologia hauen bidez talde menperatzaileek esplotazioa edota bazterketa legitimatzen dute, zaplakuntza hau talde jakin batzuek aurka bideratuz: ezaugarri fisiko, generiko edo biologiko jakin batzuk dituztenak, erregistro kultural edo jatorri nazional desberdina dutenak, etab.
- Arrazismoa normalkuntza eta gizarte kontrol era bat da.

⁷ Castles, S., *Ethnicity and Globalization*, 2000; Pascual Galmés (2002)-n aipatua, 3. orr.

-Arrazismoak forma desberdin ugari izan ditzake: aurriritzietan oinarritutako jokabideak, estereotipoak, diskriminazioa, segregazioa, intimidazioa, bortxa fisikoa, genozidioa...

3.1. Teorizazio desberdin bat: Foucault

Arrazakeriaren definizio garrantzitsuenak azaltzea helburu duen atal honetan arrazismoa teorizatu zuen autore garrantzitsu bat aipatu gabe utzi dugu: Michel Foucault pentsalari frantsesa. Honen planteamenduak puntu berezi honetan azalduko ditugu, alde batetik gainontzeko planteamenduekin alderatuz berritzailea delako eta haustura bat suposatzen duelako eta, bestetik, teoria nahiko konplexu bat den heinean azalpen berezi bat eskatzen duelako.

Foucaultek arrazismoa modu oso zabal batez aztertzen du *Genealogía del racismo* obran. Izenburuak dioen bezala, lan honetan genealogia bat eraikitzen du, hau da, gizateriaren kontrahistoria⁸ bat eraikitzen du, zeinaren oinarrian arrazen arteko gerra baitagoen. Foucaultentzat, beraz, gizateriaren historia arrazen arteko gerra batean laburbildu daiteke. Kontzepzio honetan, historia Inperio Erromatarraren inbasioekin hasten da, etnia desberdinen arteko borrokekin. Historiaren motorea, kontrahistoriaren ikuspuntutik, matxinatzeko eskubidea izango da: errebolta, gerrak...

Foucaultek arrazaz hitz egiten duenean, hala ere, kontuan izan behar dugu ez duela kontzeptu hau zentzu tradizionalan erabiltzen, baizik eta kontzeptu zabal bat bezala, desberdintasun egoera desberdinak bere baitan jasotzeko helburuarekin. Arrazismoa gizarte desberdintasunak sortutako harremanen ondorio izango da, beraz. Bestalde, Foucaultek eraikitzen duen historia arrazen arteko gerraren historia bada ere, gerra hau ez dugu ulertu behar arraza batek beste bat esklabizatzearen egintza legez. Foucault hizkuntza eta etnia desberdintasunez ari da; indar, bortizkeria zein energia desberdintasunez.

Ildo honetan, Foucaultek bi funtzio egozten dizkio arrazakeriari:

⁸ Foucaultek horrela deitzen dio berak eraikitako kontakizun historikoari. Historia konbentzionala gaindituz, inbasioetan, gerretan eta zapalkuntzan oinarritzen da Foucaulten kontrahistoria.

- a) Continuum biologikoan hausturak sortzea; hau da, gizakiaren espeziaren baitan hierarkiak, mailak, hausturak... ezartzea.
- b) Aurrekoaren ondorioz, “nire bizia” eta “bestearen heriotza”-ren artean harreman bat ezartzea; hots, zure taldearearentzat mehatxua suposatzen duten taldeak, arriskutsuak direnak, heriotzera bideratzeko diskurtsoa sortzen da arrazismoaren bidez. Foucaultentzat, “*el racismo representa la condición bajo la cual se puede ejercer el derecho a matar*”⁹.

Foucaultek dioenez, testuinguru historiko desberdinetan hilketa mekanismo horiek aldatuko dira. XIX. mendea baino lehen, *beste arraza bat hiltzeko* erabiliko da arrazakeria, hau da, herri jakin baten aurka gerra egiteko. Garai honetan ere, teoria eboluzionistekin harreman duta, herri jakinen aurkako kolonizazioa (eta genozidioa) aurrera eramateko erabiliko da. Foucaulten aburuz, hala ere, aldaketa emango da XIX. mendetik aurrera, gerra –eta arrazismoa– arrazaren birsortze edo erregeneraziorako erabiliko delarik. Arrazismo modernoa Estatuaren funtzionamenduarekin erabat loturik ikusiko du Foucaultek, bioboterea (gizakien bizitzan –eta heriotzan– zuzenean eragiten duen boterea) aurrera eramateko beharrezkoa delako. Horrela azalduko du:

“...estamos muy lejos de un racismo como simple odio o desprecio de las razas una por otra. Pero también estamos muy lejos del racismo entendido como una especie de operación ideológica con la cual el Estado o una clase tratarían de volver contra un adversario mítico las hostilidades que otros habrían vuelto contra ellos (...) Lo que hace que la especificidad del racismo moderno no esté ligado a mentalidades, a ideologías, a mentiras del poder, sino más bien a la técnica del poder, a la tecnología del poder. (...) El racismo está pues ligado a servirse de la raza, de la eliminación de las razas o de la purificación de la raza para ejercer su poder soberano.”¹⁰

Estaturik arrazistenak hilketa kopuru handiena burutzen dutenak izango dira Foucaulten hitzetan. Horrela, estatu nazia aipatuko du bereziki. Bere ustez, estatu nazia *estatu diziplinarioa*-ren adibide paradigmaticoa da, gizakien bizitzaren alor guztietan eragiten duena. Heriotza eguneroko ogia izango da erregimen honetan, ez bakarrik biologikoki etsai bezala ikusiak direnen aurka (hau da, norberaren arrazakoak ez direnak), baizik eta gizarte guztiaren aurka oro har; salaketaren bidez soilik bada ere,

⁹ Foucault, *op. cit.*, 265. orr.

¹⁰ Foucault, *op. cit.*, 267-268. orr.

edonork baitzeukan beste edonor *hiltzeko eskubidea*. Foucaultentzat, beraz, estatu nazia arrazista, guztiz hiltzailea (*absolutamente homicida*) eta suizida da.

Hala ere, Foucaultek estatu naziarekin batera estatu sozialistak ere aztertzen ditu. Bere ustez, honetan ere *hiltzeko eskubidea* aurrera eramaten du estatuak, eta arrazakeria ere ematen da: “*reencontramos el racismo, y no sólo el racismo propiamente étnico, sino el racismo evolucionista también, el racismo biológico, funcionando de lleno, en estados socialistas como la Unión Soviética, en relación con enfermos mentales, criminales, adversarios políticos*”¹¹. Horrela, estatu nazian estatu-arrazismoa arraza *babesteko* erabiltzen zen bitartean, Sobietar Batasunean klase borroka estatu-arrazismoaren mekanismoetan oinarritzen da.

Foucaultentzat, beraz, arrazen arteko gerraren diskurtsoa mugikorra da, hau da, zapaltzaileek zein zapalduak erabili dezakete, eta eraldatzeko gaitasun handia du. Bere hitzetan, inor ez da neutrala: arrazen arteko gerra gizartea zeharkatzen duen gatazka da, norbera alde batean ala bestean ipiniz. Denok gara, nahita nahi ez, norbaiten etsai.

Foucaulten teorizazio honi kritika ugari egin zaizkio. Arrazakeriaren azterketari dagokionez, arraza kontzeptua zentzu zabalegian erabiltzea leporatu zaio, honek dakarren arriskuarekin: Enfrentamendu egoera guztiei arrazismo deituz gero, badirudi mundu guztia arrazista dela eta arrazista izatea normala dela.

¹¹ Foucault, *op. cit.*, 271 orr.

4. ARRAZISMOAREN AZTERKETA SOZIOLOGIAN

Wierviorak¹² burutzen duen arrazismoaren soziologiaren historian aipatzen den bezala, arrazakeria aztertzea helburu duen soziologian –eta baita gainontzeko gizarte zientzietan ere– bi tradizio ikus ditzakegu: Europakoa alde batetik, eta Ipar Amerikako soziologoena bestetik.

Europako tradizioari dagokionez, Alexis de Tocqueville eta Max Weberrek jartzen dituzte arrazismoa aztertzeko lehen elementuak, gizarte fenomenoak ulertu ahal izateko arraza esplikazio bezala ez baitute onartzen. Beraien ustez, gizarteari dagokiona (edo soziala dena) eta naturari dagokiona (biologikoa) ez dira nahastu behar, garai hartan gizarte zientzietan egiten zen bezala. Jokabide hau antisoziologiko bezala definitu zuten.

Ipar Amerikako soziologiaren tradizioari dagokionez, hauek burututako arrazismoaren edo arrazen azterketak jatorri desberdina du. Arrazismoa aztertzerakoan soziologo iparramerikarrek beltzen afera edota XIX. mende bukaeratik emandako immigrazioa izango dute aztergai. XX. mendeko lehen bi hamarkadetan bi ikuspegi garatuko dira AEBetan: kasten eta aurriritzi arrazialen azterketa batetik, eta arraza desberdinen arteko harremanen azterketa, bestetik. Hala ere, azterketa hauek *arrazistatzat* definitu ditzakegu, arrazen artean desberdintasunak zeudela onartzen zuten heinean. Horrela, XX. mendeko 30.eko hamarkadara arte itxaron beharko da AEBetan arrazismoaren azterketa doktrina arrazistetatik bereizteko.

¹² Wierviorka, M., *El espacio del racismo*, Bartzelona, Paidós, 1992; Pascual Galmés (2002)-n aipatua, 4. orr.

5. ARRAZAKERIAREN AGERPENAK

Arrazakeriak agerpen edo espresio desberdinak dauzka jada aipatu dugun bezala. Puntu honetan gizarte ikuspuntu batetik esanguratsuenak iruditzen zazizkigunak azalduko dira: aurriritziak, estereotipoak, segregazioa eta diskriminazioa.

5.1. Aurriritziak¹³

Zenbait autorek aurriritziak fenomeno indibidual bezala ikusi dituzten arren, zuzenago dirudi aurriritziak gizarteratze eta kulturalizazio prozesuen ondorio bezala ikustea. Aurriritzien sorkuntzan, hortaz, funtsezkoak ditugu agente sozializataileak, hots: familia, eskola, adin taldeak, herriko edo auzoko harremanak, hedabideak, etab.

Hala ere, esan daiteke gaur egun aurriritziak modu sutilago batez ematen direla, ez era ireki eta zuzen batez. Horrela, *arrazismo sinbolikoaz* hitz egin dezakegu. Arrazakeria mota honek diskriminazio modu zuzenenak edo *itsusienak* gaitzesten ditu, baina aurriritzi arrazista batzuk onartzen ditu, errealitatean bizi diren gizarte arazoetan oinarrituz, ez sustrai mitikoa duen arrazismoa bezala (azken hau *arrazismo diferentzialista* deitu daiteke). Azken honen adibide garbiena arrazismo nazia izango litzateke, zeinak gizatalde judua herri alemaniarraren kalte guztien errudun mitiko bezala irudikatzen baitu.

Aurriritziak, azkenik, jarrera bat dira, objektu bat (gizarte egoera jakin bat, gizarte arazoak...) ebaluazio negatibo batekin (afektua, emozioa, oroitzapena, sinesmena) lotzen dituenak.

5.2. Estereotipoak

Estereotipoak dira, aurriritziekin batera, jarrera edo sinesmen arrazisten atzean dauden fenomeno arruntenak. Horrela, estereotipoa ideologia arrazistaren elementu klabeetariko bat bezala definitu dezakegu. Aurriritzia jarrera bat den bitartean,

¹³ Puntu hau ondoko lan honetan oinarritu da: Malgenesi, G. eta Giménez, C., *Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad*, Madril, Catarata, 2000

estereotipoa sinesmen multzo bat da. Estereotipoak, horrela, justifikazio bat izango lirateke, talde jakin batekiko edo batzuekiko sentitzen den herra arrazionalizatzeko balioko lukeena. Ildo honetan, Allport gizarte psikologoak hurrengo definizioa ematen du: “*Creencia exagerada asociada a una categoría. Su función es justificar (racionalizar) nuestra conducta en relación con la categoría*”¹⁴.

Hala ere, kontuan izan beharrekoa da estereotipo positiboak ere existitzen direla eta, ondorioz, nahiz eta askotan estereotipo eta aurriritziak lotura izan dezaketen, beti ez direla estereotipoak eta aurriritziak erlazionatu behar. Honen adibide dugu talde askori egozten zaizkien estereotipo positiboak, alemanak langileak direla, adibidez.

Estereotipoek betetzen dituzten funtzioei dagokienez, oinarrian bi izango lirateke:

- a) Funtzio indibidualak, norberaren balioak eta ikuspuntuak kategorizatzeko balio dute.
- b) Gizarte funtzioak, garrantzitsuagoak ikuspuntu sozial batetik, jendarte jakin batean estereotipo jakin batzuk hedatzea ahalbidetzen duten arazoiez galdetzeraz garrantzitzen heinean. Horrela, estereotipoak behar desberdinek bultzatuta sortuko dira: gizarte gertaera larriak azaltzeko premia, kanpoko taldeen (*exo-taldea*) aurkako ekintzak edota neurriak justifikatzearen beharra, eta norberaren taldearen (*endo-taldea*) desberdintze positiboa ahalbidetzea.

5.3. Segregazioa eta diskriminazioa

Segregazioa eta diskriminazioa arrazakeriaren agerpen zehatzak dira. Segregazioa talde jakin bat –talde arrazializatua edota zapaldua– fisikoki aldentzea da, distantzia bat mantentzea, horretarako talde horrentzat espazio jakinak zehaztuz edota leku jakin batzuetan egotea debekatuz. Egoera hau neurri politiko batzuen ondorio da eta bere xedea gizatalde desberdinen (politika hauek aurrera daramatzaten arrazistentzat, behintzat) arteko harremanak ekiditea da. Egoera honen adibiderik garbiena Hego Afrikan immigrante europarren oinordekoek bertako beltzen aurka aurrera eramandako

¹⁴ Allport, G.W., *The nature of Prejudice*, 1954; Pascual Galmés (2002)-n aipatua, 6. orr.

apartheid sistema izango litzateke (hurrengo puntuan, gainera bada ere, azalduko duguna). Segregazioa, hala ere, Estatu Batuetan ere indarrean egon zen 60.eko hamarkadara arte.

Diskriminazioari dagokionez, gizarte bizitzaren alor desberdinetan talde zapalduari tratu desberdina eskaintzea da, egoera hau umilaziora irits daitekeelarik. Hala ere, diskriminazioa modu sutiletik bortitzenera eman daiteke, eta praktikan ezin da marra zehatzik margotu diskriminazioa eta segregazioaren artean. Biak gizarte bazterketa erak dira.

Hala ere, segregazioak “espazio”-ri egiten dio gehiago erreferentzia, diskriminazioak aldiz “tratua”-ri. Segregazioan espazioaz ari garenean, hala ere, ez da ulertu behar espazio fisikoa soilik, baita espazio soziala ere. Horrela, segregazioa gizarte esparru desberdinetan eman daiteke: hezkuntzan, osasunean, parte hartze politikoari dagokionean, etab. Segregazioa, finean, pertsonen banantzean eta harremanen eragozpenean oinarritzen da.

6. ARRAZAKERIAREN MUTURREKO ADIBIDEA: HEGO

AFRIKAKO APARTHEID-A

Arrazismoaren agerpen desberdinak aztertu eta gero, puntu honetan segregazioaren adibiderik argienetarikoa bezala definitu dezakeguna azaltzen saiatuko naiz: Hego Afrikako apartheid sistema. Atal honen helburua ez da sistema hori era sakon batean azaltzea, bere ezaugarri garrantzitsuenak agertzea baizik, aurrean aipatutako arrazismoari buruzko teoria desberdinen adibide praktikoa bat den heinean, adibide paradigmaticoa gainera. Hau guztiagatik, apartheid-a era sinple batez eta asko laburtuz azalduko da puntu honetan.

Apartheid-a ulertzeko Hego Afrikako banaketa etnikoa aipatzea ezinbestekoa da. Horrela, 1991ko datuetan oinarrituz, biztanleriaren %75,6a beltzak dira, %13,2a zuriak, %2,6 asiarrak (Indiakoak eta Pakistangoak batez ere) eta gainontzeko %8,6a

mestizoak¹⁵. Banaketa honetan, hala ere, kontuan hartu behar da *beltzak* deitutakoen artean talde etniko desberdin ugari dagoela; zurien bernean, era berean, *afrikaners* edo *boers* delakoak daude –XVII. mendean iritsitako holandarren oinordekoak–, baita ingelesen oinordekoak –Hego Afrika kolonia britainiar bihurtzerakoan iritsitakoak batez ere–, alemanak eta frantsesak ere. Konkistatzaile europar hauek iristearekin batera zuriak ez zirenek zapalketa ezagutu zuten.

1934an lortu zuen independentzia Hego Afrikak Britainia Handitik. Momentu hartatik aurrera, estatu berriaren kontrola *boer*-ek eskuratu zuten, hauen eta ingelesen artean tirabira ugari egon zen arren. 1948an *afrikaner*-en alderdi nazionalista kontserbadoreak (National Party) eskuratu zuen boterea, apartheid sistemari hasiera emanaz. Apartheid hitzak, *afrikaan* hizkuntzaz, banaketa esan nahi du. Sistema honen arabera, “arraza desberdinen garapen banandua” bilatzen zen teorian, beti ere arraza zuriaren gidaritzapean. Esan beharrik ez dago praktikan garapena zuriek soilik ezagutu zutela.

Politika hau arrera eramateko, *lege arrazialak* ezarri zituen gobernu zuriak, bizitzaren alor guztietan eragina zutenak. Honekin batera, mailaketa arrazial bat inposatu zen; itxura, onarpen soziala eta oinordekotza kriterio bezala hartuz, Hego Afrikako biztanleria hiru taldetan banandu zuten: zuriak, beltz edo *banthu*-ak eta mestizoak. Aurrerago, beste talde bat gehitu zuten klasifikazio honetan: indiarrak. Neurri hauen guztien eraginez, errepresio poliziala izugarria izan zen (Hego Afrika estatu polizial eta militarizatua bihurtuz); arraza desberdinen arteko eskontzak debekatu ziren, baita sexu harremanak ere; beltzek ezin zuten Hego Afrikako bizitza publikoan inolako parte hartzerik eduki; Alderdi Komunista debekatu zuten; etab.

Segregazioa osoa zen eremu publiko guztietan eta probintzia modukoak sortu ziren arraza desberdinak banatzeko. Beltzentzat, *homelands* delakoak sortu ziren, beltzentzako lurralde sasi-autonomoak, eremu hauetara bidaltzeko beste lurralde askotatik beltzak espulsatuz. Lurraldearen %80a, aldiz, zurien esku zegoen. Beltzek *homeland*-etan soilik zituzten eskubideak eta bertatik ateratzeko pasaporte behar zuten.

¹⁵ Datuak ondoko web orri honetatik atera dira:
http://sepiensa.org.mx/contenidos/historia_mundo/siglo_xx/Africa/apartheid/apartheid.htm

Praktikan, beraz, eremu txiki hauetatik at beltzak atzerritarrek ziren Hego Afrikan. Honekin batera, Hego Afrikako parlamentuan beltzek ez zuten ordezkartzarik.

Esan beharrik ez dago apartheid-ak erresistentziak sortu zituela. Gaietik aipatzearren, beltzek CNA (Nazio Kongresu Afrikarra), Inkatha eta PAC (Alderdi Panafrikanista) bezalako mugimendu politikoetan antolatu ziren. 60ko hamarkadan CNAk eta PACek borroka armatuari ekin zioten. Erresistentzia honen sinbolorik ezagunena Nelson Mandela dugu, 26 urte espetxean eman zituena.

1977an nazioarte mailan presioa hasi zen (blokeo ekonomikoa, NBEn adierazpenak...) Hego Afrikak apartheid sistema deuseztatu zezan eta, handik aurrera, gertaerak bata bestearen atzean gertatu ziren: 1989an Willian de Klerk moderatua bihurtu zen Hego Afrikako presidente; 1990ean Nelson Mandela askatu zuten; 1991n apartheid-a ofizialki deuseztu zen konstituzioa erreformatuz (lege arrazialak indargabetu ziren, *homeland*-ak disolbatu...). 1994. urtean hauteskunde irekiak burutu ziren, arrazatiko diskriminaziorik gabe, Nelson Mandela presidente bilakatuz.

Gaur egun egoera zaila bizi du Hego Afrikak. Urte hauetako guztietako segregazioak eta mendeetako diskriminazioek eragina dute hegoafrikarren. Arrazen arteko berdintasuna ez da errealitate bat, batez ere egoera ekonomikoari dagokionez. Orokorrean, Hego Afrikako egoera ekonomikoa oso txarra da. Autore batzuek apartheid berri batez hitz egiten dute, Trevor Ngwane-k adibidez, honela dio: *“El apartheid basado en la raza ha sido reemplazado por un apartheid basado en la clase social”*¹⁶. Honek guztiak tentsio berriak sortu ditu.

¹⁶ Ondoko artikuluan aipatua: Klein, Naomi, “El nuevo apartheid”, 2001.

7. ONDORIOAK

Arrazakeria oso modu desberdinez aztertu daitezkeen fenomenoak dugu, arrazoi batengatik: oso fenomeno konplexua da. Alde asko dituen eta alde asko ukitzen dituen arazoa da arrazismoa. Horrela, lan honetan ikusi dugu arrazakeria gizarte fenomeno bat dela baina, aldi berean, oso txertaturik dagoela gizakiaren kontzientzian. Kontuan izan behar da, era berean, arrazismoak sustrai sakonak dituela, historian ia betidanik eman dela dirudi-eta. Hori bai, forma oso desberdinak hartuz eta interes desberdinek bultzatuta.

Arrazakeria fenomeno anitza dugu ere bai: forma ugari du, suturetik bortitzenera. Lan honetan Hego Afrikako apartheid-a ikusi dugu, arrazismoaren manifestazio bortitzenetakoa bezala definitu dezakeguna. Gaur egun, zorionez, halako sistema bat aurrera eramatea ezinezkoa da, baina honekin batera, diskriminazio mota ez hain bortitzak (auriritziak eta estereotipoak) eguneroko ogia dira, eta herrialde askotan, ofizialki eta legez onartzen ez den arren, apartheid-aren antzeko egoerak ematen dira.

Azalpen teorikoak, beraz, oso desberdinak izan daitezke, bai ikuspuntuaren arabera eta baita ideologiaren arabera ere. Baina argi dago oinarri-oinarrian “besteak”-rekiko beldurra dagoela arrazakeriaren atzean. Eta beldur honetaz ari garela, ezjakintasuna eta desinformazioa ere aipatu behar ditugu, beldurrarekin erlazio zuzena dutenak. Gaur egungo gizarteetan, beraz, teorikoki behintzat, pertsonen artean informazio edo hezkuntza zuzen bat garatzen den heinean, jarrera arrazistak geroz eta zailago izango dute indartsuak izaten (horrela, era argi batean bere burua arrazistatzat definitzen dituzten talde eta sistemak, naziak esaterako, marginalak dira). Era kontziente edo argian gutxienez hau horrela da, baina inplizituki eta izkutuan, denon barnean baitago mamu arrazista.

8. BIBLIOGRAFIA

- Chebel D´Appollonia, A., *Los racismos cotidianos*, Edicions Bellaterra, Bartzelona, 1998.
- Foucault, Michel, *Genealogía del racismo*, La Piqueta, Madril, 1992.
- Klein, Naomi, *El nuevo apartheid*, 2001
www.jornada.unam.mx/2001/nov01/011125/mas-apartheid.html
- Macionis, John J., eta Plummer, Ken, *Sociología*, Prentice Hall, Madril, 1999.
- Malgenesi, G., eta Giménez, C., *Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad*, Catarata, Madril, 2000.
- Pascual Galmés, Antònia, *El racismo y sus formas elementales. Su repercusión en el contexto educativo*, IX Conferencia de sociología de la educación, Palma de Mallorca, 2002.
www.ase.es/comunica02/2.5.%20comunic%20a%20pascual.rtf